

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

2150

HUTSEN ZUZENKETA, honako lege honena: «6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikulua ezartzen du, argitaratzeko bidalitako testuan egindako hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Idazkaritzak zuzenduko dituela, baldin eta nabarmenak badira, agirien esanahia aldatzen ez badute eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Horretarako, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak aginduko du.

Era horretako hutsak aurkitu dira 6/2016 Legean, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa, (2016ko maiatzaren 19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 94 zk.). Hori dela-eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

Zioen azalpenaren zazpigarren paragrafoan, 2016/2096 (19/2) orrialdean euskarazko bertsioan, eta 2016/2096 (2/19) orrialdean gaztelaniazko bertsioan,

Hau dioen tokian:

«Hirugarren sektore soziala ekimen sozialeko erakundeek osatzen dute; erakunde horiek oinarri bazkide eta boluntarioz osatutako oinarri soziala daukate, eta horiez gainera askotan langile kontratatu ordainduak ere badauzkate, eta esku-hartze sozialeko jarduerak gauzatzeko dituzte».

Honela esan behar du:

«Hirugarren sektore soziala ekimen sozialeko erakundeek osatzen dute; erakunde horiek euskal gizartetik sortzen dira eta oinarri sozial bat daukate, bazkide eta boluntarioz osatua, horiez gainera askotan langile kontratatu ordainduak ere osatua; eta esku-hartze sozialeko jarduerak gauzatzeko dituzte».

Gaztelaniazko bertsioaren zioen azalpenaren hamalagarren paragrafoan, 2016/2096 (3/19) orrialdean,

Hau dioen tokian:

«... la contribución social de las familias, el cuidado de las y los familiares cuidadores y la corresponsabilidad y conciliación que favorece el ejercicio de la ciudadanía activa...»

Honela esan behar du:

«... la contribución social de las familias, el cuidado de las y los familiares cuidadores y la corresponsabilidad y conciliación, que favorecen el ejercicio de la ciudadanía activa...»

Gaztelaniazko bertsioaren 1. artikuluan, 2016/2096 (5/19) orrialdean,

Hau dioen tokian:

«Esta ley tiene como objeto configurar y caracterizar el tercer sector social de Euskadi a través de las organizaciones y redes que la conforman...»

Honela esan behar du:

«Esta ley tiene como objeto configurar y caracterizar el tercer sector social de Euskadi a través de las organizaciones y redes que lo conforman...»

6. artikularen, f) apartatuan, 2016/2096 (19/10) orrialdean euskarazko bertsioan, eta 2016/2096 (9/19) orrialdean gaztelaniazko bertsioan,

Hau dioen tokian:

«... zaurtasun- edo bazterketa-egoeran, babesgabetasun-egoeran, desgaitasun-egoeran edo mendetasun-egoeran dauden pertsona, familia, kolektibo edo komunitateentzat bakarrik pentsatutako...»

Honela esan behar du:

«... zaurtasun- edo bazterketa-egoeran, desberdintasun-egoeran, babesgabetasun-egoeran, desgaitasun-egoeran edo mendetasun-egoeran dauden pertsona, familia, kolektibo edo komunitateentzat bakarrik pentsatutako...»

8. artikuluan, 2016/2096 (19/11) orrialdean euskarazko bertsioan, eta 2016/2096 (10/19) orrialdean gaztelaniazko bertsioan,

Hau dioen tokian:

«Esku-hartze sozialaren esparruan erantzukizunak dituzten euskal administrazio publikoek dagokien lurraldean erreferentziakoak diren Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareak honako hauetan sartuko dituzte, egokitzen jotzen badute:»

Honela esan behar du:

«Esku-hartze sozialaren esparruan erantzukizunak dituzten euskal administrazio publikoek dagokien lurraldean erreferentziakoak diren Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareak honako hauetan sartuko dituzte:»

Gaztelaniazko bertsioaren 10.2 artikuluan, 2016/2096 (11/19) orrialdean,

Hau dioen tokian:

«... promoverá la participación de las organizaciones...»

Honela esan behar du:

«... promoverán la participación de las organizaciones...»